

CUÉNTAME UN
CUENTO



TELL ME IN
ANOTHER LANGUAGE



PARLER AVEC MOI



HIZKUNTZEN MUNDUAN
GOZATUZ



Ume elebidunen
gurasoentzako gida

AURKIBIDEA

- **Hizkuntzak ikastea:**
gure ardura da laguntzea..... 04
- **Hiru proposamen euskararekin lagundu ahal izateko:**
 - zaindu ingurune hurbila eta eskola orduz kanpoko jarduerak 10
 - erabili eta erabilerarekiko interesa erakutsi 12
 - egin lekua etxean 15



Gero eta ohikoagoa da gure inguruko umeei eta gurasoei euskaraz hitz egiten entzutea. Izan ere, gure gizartea gero eta eleanitzagoa da eta gure seme-alabak eleanitzak izango dira. **Gurasoon arduretako bat bada bide horretan parte hartzea eta gure seme-alabei hizkuntzen ikaste prozesuan laguntzea**, eurak ere gizarte honen zati izan daitezten. Ondorengo orrietan aurkituko dituzue zeregin horretan lagunduko dizueten hainbat proposamen, tresna eta argibide

Sustatzaileak:



Babesleak:



Testuak: Iñaki Eizmendi. EBETE hizkuntza zerbitzuak. Diseinua: OCR Branding

HIZKUNTZAK IKASTEA: GURE ARDURA DA LAGUNTZEA

Helburua **hizkuntza bat baino gehiago** ondo ikastea da, eta euskaraz zein gaztelaniaz edozein egoeratan eroso aritzeko gai izatea.

Eskolak bere lana gero eta hobeto egiten du, baina mugak ditu eta gurasoon ardura ere bada, ezinbestean, bide horretan laguntzea.

Hizkuntza bat baino gehiago ikastea onuragarria izango da gure seme-alabentzat. Abantailak hainbat dira:

- **Gizarte arlokoak:** leku eta egoera anitzetan komunikatzeko gai izatea.
- **Lan arlokoak:** lana bilatzerakoan eremu eta esparru gehiagotan aukerak izatea.
- **Kultura arlokoak:** hizkuntza horietako kultura ulertzeko eta kontsumitzeko aukera izatea, baita sortzekoa ere.

Eskaini seme-alabei baldintza egokiak hizkuntzak ondo ikas ditzaten:

- Zaindu lehen hizkuntza.
- Lagundu euskaraz eta gaztelaniaz gaitasun egokia ona lortzen.
- Eskaini ingelesa eta beste hainbat hizkuntza ikasteko aukera.

1

LEHEN HIZKUNTZA BEREGANATZEA

Lehen hizkuntza bereganatzea izango da eleaniztasunera begirako abiapuntua.

Berdin da hizkuntza hori zein den. Hizkuntza horretan oinarri ona izateak gainontzeko hizkuntzak ikasten lagunduko die.

Gurasoon **jarrera** da garrantzitsua, lehen hizkuntza zaintzea eta ikasten ari diren beste hizkuntzekiko interesa erakustea.





2

EUSKARA IKASTEA

Lagundu euskara ondo ikas dezaten eta zaindu hizkuntzarekin duten harremana.

Eskolatik kanpo euskara entzuteko eta erabiltzeko aukerak behar dituzte. **Hizkuntzak ondo ikasteko asko erabili behar dira** eta, gainera, garrantzitsua da ikasketekin soilik ez lotzea eta beste hainbat bizipen eta erreferente izatea.

Ikaste prozesuari jarraipena egin baina, batez ere, **eskaini zuen seme-alabei euskara entzun eta erabiltzeko esparruak**. Irakurri adi-adi ondorengo orrietan zuen eguneroko bizimoduan erabiltzeko moduko hainbat proposamen aurkituko dituzue eta.

3

GAZTELANIA IKASTEA

Gaztelaniaren ikaste prozesuari jarraipena egin.

Haur askoren lehen hizkuntza da, gizartean gehien erabiltzen da eta eskolan ere lantzen da. Gaztelania ondo ikasiko dute, ziur egon horretaz, baina egin jarraipena eta berba egin irakasleekin, ikaste prozesua egokia izaten ari dela bermatzeko.

4

BESTE HIZKUNTZAREN BAT IKASTEA

Ingelesa nazioartean gaur egun gehien erabiltzen den hizkuntza da eta **seme-alabek hizkuntza hori ere ondo ikastea nahi izaten dugu**.

Haurrek eta gazteek beraien gizarteratze prozesuan euskara eta gaztelania behar dituzte eta beste hizkuntza bat ikastea oso aberasgarria izan daiteke. Erakutsi interesa, hori da garrantzitsuena, egin jarraipena ikasketa prozesuari, egin berba irakasleekin, eta eman haurrari ikasten ari den hizkuntza horiek entzuteko eta erabiltzeko aukera.

HIRU PROPOSAMEN EUSKARAREKIN LAGUNDU AHAL IZATEKO

Hizkuntza bat ondo ikasten dugunean edozein harreman eta egoeratan eroso eta seguru aritzeko gai gara. Eskolan hizkuntzak landuko dituzte, baina han **ikasitakoa indartzen saiatzea garrantzitsua da.**

Kontuan izan eskolan ikasi arren, kalean zein komunikabideetan entzun eta erabiltzeko aukera handirik ez dutela sarri askotan.

Eskolatik kanpo zenbat eta euskara gehiago erabili, orduan eta **erraztasun eta aberastasun handiagoa izango dute.** Hori ikasketei begira ona izango da, baina era berean, bizipenak eta harremanak izango dituzte egoera eta pertsona ezberdinekin eta hizkuntza horretako kultura bereganatuko dute. Hona hemen landu ditzakegun hiru eremu:

Zaindu ingurune hurbila eta eskola orduz kanpoko jarduerak

Erabili eta erabilerarekiko interesa erakutsi

Egin lekua etxean



ZAINDU INGURUNE HURBILA ETA ESKOLA ORDUZ KANPOKO JARDUERA

Herri askotan euskarak leku handia du kalean, baina beste hainbat herritan kaleko hizkuntza nagusia gaztelania da. Benetan garrantzitsua da gure seme-alabek ikustea inguru hurbilean euskarak ere baduela lekua eta hainbat harreman eta egoeratan erabil dezaketela. **Zer egin inguru hurbilean euskara eskaintzeko?**

Beste gurasoekin ere euskaraz

Euskaraz baldin badakigu, beste **guraso euskaldunekin euskaraz egitea** ona izango da gure seme-alabentzat: euskara ez dela soilik etxe barrurako hizkuntza ikusiko dute. Eredua emango diegu.

Dakitenei gure seme-alabekin erabiltzeko eskatu

Gure inguru hurbilean ziur badirela hainbat heldu euskaraz dakitenak. Horiei eskatzen badiegu gure seme-alabei euskaraz egiteko, eskolatik kanpo euskara erabiltzen dela eta hainbat egoera eta **harremanetan erabil daitekeela erakutsiko diegu.**

Ekitaldiak


Euskarazko antzerkietara, pailazoen saioetara edo ipuin kontaketa saioetara joatea lagungarria izango da beraientzat.



Eskola orduz kanpoko jardueretan

Eskolaz kanpo euskara eskaintzeko bide eraginkorrena eskola orduz kanpoko jarduerak dira. Komenigarria da jarduera horiek euskaraz izatea: kirola, musika, dantza, antzerkia, aisialdia...

Bizipen asko jasotzen dituzte eta erreferente asko ere bertan izaten dituzte. Euskara eskolarekin soilik ez lotzeko bide eraginkorra da. Gune babestuak dira: hezitzaile batek dinamizatzen ditu eta euskararen erabilera ere bultzatu dezake. **Hizkuntza erabiliko dutenez, gaitasuna hobetzeko eta erraztasuna hartzeko bidea da.**



KONTUAN IZAN: seme-alabentzat eskola orduz kanpoko jarduerak hautatzen dituzuenean, **aukera baldin baduzue, euskarazkoa hartu.** Nahi duzuen jarduera ez badute euskaraz eskaintzen, antolatzaileei eskatu euskaraz nahi duzuela. Gurasoek eskatzen baduzue, eskaintza poliki-poliki moldatuko da.

Zuen inguruan euskaraz zein jarduera eskaintzen diren ez badakizue, galdetu zuen **Udaleko Euskara Zerbitzuan edota zuen seme-alaben eskolan.**

ERABILI ETA ERAKUTSI ERABILERAREKIKO INTERESA

Gurasook seme-alabei euskara eskaintzea benetan onuragarria izango da beraientzat. Zaindu zuon ama hizkuntza, euskara bada, ez ahaztu eredu zaretela eta hurrek ikusitakotik ikasten dutela, erabili beraz. Euskara ez bada, zaindu etxekoa bai, baina era berean, saiatu euskara eskaintzen, **guztiok eskain dezakegu euskara:** euskara dakigunok, euskaraz jakin bai baina zailtasunak ditugunok, euskara gutxi dakigunok edota ez dakigunok.



Euskaraz badakigu

Seme-alabekin eta ingurukoekin saiatu beti euskara erabiltzen, ez ahaztu seme-alaben ispilu garelara.

Kontuan izan:

Beti euskaraz egin, baita euskara ez dakitenak zuekin daudenean ere. Hau da: jende gehiagorekin egonda ere elkarrizketa zuen semearekin-alabarekin bada, zalantzarik gabe euskaraz egin.

Euskara jakin bai baina zailtasunak ditugu

Ahal duzuen guztia erabiltzea egokia da euskara eskainiko diezuelako, baina ez dezala komunikazioa oztopatu.

Beharrezkoa ikusten duzueanean, erraztasun gehien duzuen hizkuntzara itzuli. Hizkuntzak ezin du oztopo izan seme-alabekin komunikazioan eta harreman afektiboan.

- Kaixo, laztana, zer moduz txangoa?
- Muy bien.
- Ondo pasa duzu? Eta zer egin duzue ba?
- Hemos ido en autobús y hemos subido al monte.
- Gozo zegoen ogitartekoa?
- Oso gozo.
- Oso ondo. Goazen etxera. Me lo tienes que contar todo.

IZAN GAITEZEN GURASO BERRITSUAK

Beraiekin ahal dugun euskara guztia erabiltzea eta **inguru hurbilean euskara egongo dela bermatzea garrantzitsua da**, baina horrekin batera, oso lagungarria da erabilerarekiko interesa erakustea eta horretan laguntzea.

- **Jolasten ari direnean** hainbatetan tartean sartzten gara eta beraiekin jolasten gara. *
- **Seme-alaben lagunekin** ere asko hitz egiten dugu eta beraiekin kontu kontari aritzen gara. *
- **Jolas eta egoera berriak proposatzen dizkiegu**, eta horietan euskarazko esaldiak eta abestiak sartzten ditugu.
- **Euskaraz izatea nahi genukeen harremanei buruz hitz egiten dugu** seme-alabekin eta gure laguntza eskaintzen diegu.
- Aukera ikusten dugunean, **beste gurasoekin ere gaiari buruz hitz egiten dugu** eta laguntzeko moduak adosten ditugu.
- **www.emangiltza.eus** web gunean aurkituko dituzue ideia gehiago eta hainbat adibide.

* Bi puntu hauetan beharrezkoa da euskara ondo edo nahiko ondo jakitea. Gainontzeko gomendioetan ez da beharrezkoa.



EGIN LEKUA ETXEAN

Erraza eta dibertigarria izan daiteke etxean euskarari leku egitea eta euskara etxean sartzten duzuela ikustea **oso onuragarria izango da zuen seme-alabentzat**. Hona hemen horretan lagunduko dizueten zenbait baliabide:



Musika

Etxean, kotxean, euskarazko musika jarri; eskulanak egiten ari direnean, mahai jolasetan ari garenean.

www.txantxangorria.eus
www.ahotsak.eus
www.kantuan.net



Liburuak eta aldizkariak

Liburutegian euskarazko liburu zein aldizkariak hartu eta eurekin batera irakurri. Euskarazko aldizkarietara harpidetza egin.

www.irrienlagunak.eus



Komunikabideak

Telebistan, irratian eta komunikabideetan oro har, ahal den neurrian, euskara nagusi izan dadila.

www.katxiporreta.eus
Marrazki bizidunak:
www.eitb.eus/kultura/zinema-euskaraz/
www.eitb.eus/hiru3/



Ipuinak

Euskarazko ipuinak kontatu, irakurri, entzun. Beraiekin batera ipuinak asmatu, txotxongiloekin antzestu.

www.aittu.net
www.etxegiroan.com
www.solasegitekoipuinak.net
Mobileko aplikazioa: Ipuintxo



Jostailuak

Euskarazko jostailuak eta produktuak oparitu.

www.katalogoa.eus



Hizkuntza-paisaia

Egutegiak, posterrak, erosketen zerrenda, marrazkiak esaldiekin... Etxeko txoko guztietan egon daiteke euskara.



ETA BURURATZEN ZAIZUEN BESTE EDOZER!

BIBLIOGRAFI A

- **Alma Flor, A., Baker, C.**
Guía para padres y maestros de niños bilingües (2001)
- **Kasares, P., Hernandez J.M, eta beste batzuk.**
Transmisioaren molde berriak (BAT Soziolinguistika aldizkaria, 2015)
- **Martinez de Luna, I., Suberbiola, P., Basurto, A.**
Ikasleen Eskola giroko Hizkuntza erabileraren azterketa (Ulibarri programa, 2009)
- **Anderson, U., Anderson, S.**
Crecer con dos idiomas: una guía práctica del bilingüismo (2007)
- **Harding-Esch, E., Riley, P.**
La familia bilingüe: guía para padres (2003)
- **Montanari, E.**
Crecer en una familia bilingüe: la educación plurilingüe en casa y en la escuela (2007)
- **Abdelilah-Bauer, B.**
El desafío del bilingüismo (2007)

Gurasoentzako aholkuak eta kezken erantzunak: www.emangiltza.eus

Webgune honetan seme-alabei eleaniztasunerako bidean laguntzeko hainbat aholku eta tresna aurkituko dituzue. Gai horien inguruan izaten dituzuen kezken erantzunak ere badaude. Adibidez: Nola lagundu eskolako lanekin euskaraz ez badakigu? Nik euskara dakit baina nire bikotekideak ez, nola egin behar genuke seme-alabekin? eta abar.

